

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: KULTURA, KIROLA EDO GENERO BERDINTASUNERA EDO KONTZILIAZIO ERANTZUKIDERA ZUZENDUTA DAUDEN EKINTZA EDO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN 2025. URTEKO DEIALDIA.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

1.1. Oinarri hauen xedea Beasaingo elkarte, club eta herritarren parte-hartzea sustatzea, beasaindarrentzat interesgarriak izan daitezkeen kirol, kultura edo genero-berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea sustatzen duten jarduera eta ekitaldien garapenarekin zerikusia duten jarduera eta ekitaldietan.

1.2. Programa eta jarduera horiek ez dute irabazteko asmorik izango; Beasaingo udalerrian garatuko dira edo, udalerritik kanpo garatzen badira, haien onuradunak Beasainen erroldatutako pertsonak izan behar dute; eta diru- laguntza deialdiari dagokion ekitaldian garatuko dira.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) Elkarte eta klubak kasuan, egoitza soziala, ordezkaritza edo egitura administrativo iraunkorra Beasainen izan beharko dute, eta legez eratuta eta dagokion Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.
- b) Herritarren kasuan, dirulaguntza eskatzen den momentuan Beasainen erroldatuta egon beharko da.

Entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beasainen jardueraren bat edo programaren bat egitea, deialdiaren urtean.
- b) Udalaren aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.
- c) Beasaingo Udalak egingo dituen ikuskapenen menpe jartzea, eta egin behar dituen ikuskatze jarduerak ez eragozteak.
- d) Jarduera bererako lortu den beste edozein dirulaguntzaren berri ematea (iturria publikoa zein pribatua izan).
- e) Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, baita ohiko funtzionamendugastuei buruzkoetan ere, Udalaren lankidetzara adierazi beharko da, udal-armarria sartuta.
- f) Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal Ordenantza betetzen dela zaintzea

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Gehienez, 3.000€ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak.

4. Eskakera non eta noiz aurkeztu

Epea:

Udalbatzak onetsitakoan, DNBra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea hasiko da. Dirulaguntza eskatzeko epea azaroak 28an amaituko da.

Modua:

Eskabidea oinarri hauetako eskaera orrian jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>.
- Posta zerbitzuaren bidez.
- Aurrez aurre, Igunean.